

Tecmaneko langileok gure soldatekin jolasteaz nekatu gara



Urtebete baino gehiago igaro da Mendaroko ospitaleko mantenimenduko langileok gure nominetan arazoak edukitzen hasi ginenetik: urteko igoera berandu aplikatu, dauzkagun bajen osagarriak ez aplikatu, guardia orduak gaizki ordaindu... eta nekatu garela esateko momentua heldu da.

Pentsatu momentu batez guk ere gure lanean akatsak egingo bagenitu: ospitaleko oheak konpondu gabe utzi, ospitaleko kalefakzio sistemaren jarraipena ez egin, anbulategietako komunetako argiak aldatu gabe laga... onartezina, ezta? Ba guri exigitzen zaigun profesionaltasun eta ardura maila berdina da eskatzen dioguna Tecmaneri, Tecmaneko aholkularitzari eta zerbitzuko arduraduna den Osakidetza.

Pazientziaz jardun dugu denbora luzez baina erabakiak hartzeko momentua heldu da: hurrengo nominetan akatsak ez badira konpontzen Tecmaneko langileok grebara goaz. Martxoaren 5ean, martxoaren 12an eta martxoaren 17an greba egiteko asmoa daukagu aldarrikapen oso zehatz bat betetzen ez bada: gure nominetan akatsik ez!

Mendaroko ospitaleko eta Debabarreneko anbulategietako mantenimendu lanak egiten ditugun langileok ezin dugu onartzen jarraitu gure nominetan akatsak egotea. Tecmaneri zein osakidetzari arazoa konpon dezaten eta euren ardurak profesionaltasunez bete ditzatzen eskatu diegu.

Ha pasado más de un año desde que los trabajadores y trabajadoras de mantenimiento del hospital de Mendaro empezamos a tener problemas en nuestras nóminas: tardanza en aplicar la subida anual, no aplicar los complementos de bajas, errores en el pago de las horas de guardia... y llega el momento de decir que nos hemos cansado.

Pensad por un momento que nosotros también cometíamos errores en nuestro trabajo, dejar las camas del hospital sin arreglar, no hacer el seguimiento del sistema de calefacción del hospital, dejar las luces de los aseos de los ambulatorios sin cambiar... inaceptable, ¿no? Pues el nivel de profesionalidad y responsabilidad que se nos exige a nosotros es el mismo que exigimos a Tecman, a la asesoría de Tecman y a Osakidetza, responsable final del servicio.

Hemos actuado pacientemente durante mucho tiempo pero ha llegado el momento de tomar decisiones: la plnatilla de Tecman irá a la huelga si no se solucionan los errores en las siguientes nóminas. Tenemos intención de hacer huelga los días 5 de marzo, 12 de marzo y 17 de marzo si no se cumple una reivindicación muy concreta: ¡ningún error en nuestras nóminas!